

» zuzendariari

BERRIAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Tarte bikoitzarekin idatzitako orrialde batean kabitu behar dute, eta BERRIAK mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izena eta herria adierazita: BERRIA, Martin Ugalde Kultur Parkea, 30012 Andoain. iritzia@berria.info

Xabier Kintanari

Aitortu beharrean nago gaiak ezeroso jartzen naue-la. Inork ez daki idaztea erabakitzeak kostatuko, baina egin behar dudala uste dut.

Azaroaren 25ean BERRIAN argitaratutako zure eskutitzean, nire senarra, Txillardegia, euskaltzain osoa aukeratzeko prozesuan gertatutakoaz diozuna egia da, bai; baina ez egia osoa, alegia. Halere, beti kalapitan ezin egon eta minduta egonik ere, ez nuen inorekin komentatu.

Orain, ordea, ezin naiz isildu jakin ondoren ohorezko euskaltzain izendatu duzuela, berak nola pentsatzen duen jabetuta eta bera-rekin kontsultatu gabe (beste batzuk jakinarean gainean jarri dituzuela segurtasun osoz esan dezaket).

Zure artikulura itzulita, Euskaltzaindian gertatutako parte bat bakarrik da zuk kontatutakoa. Zuk *acta*-k historiatzat hartzen dituzu, eta historia bestelakoa izan da. Baina hau ez da tokia horiek kontatzeko.

Nahi baino luzeago ari naiz, Xabier adiskidea, baina, halere, bukatu aurretik erregu bat luzatu nahi dizut. Mesedez, utzi bere horretan dagoena. Txillardegia ez da gaurko Euskaltzaindi horretako gizona; hiru-lau lagun salbu, gainerako guztiek

ia batere adostasunik ez baitu baloreen munduan. Nor bere lekuan, hobe.

Ione Forcada
Donostia

San Andres egun batean

Duela 74 urte, azaroaren 30ean, San Andres egun batean, militante abertzale multzo batek erabaki zuen jeltxekeriarekin apurtu eta abertzaletasun aurrerakoiaren oinarriak jartzea. *San Andresen manifestu*ren inguruan bildurik, EAE-ANV alderdia sortu zuten, ezker abertzaleko aurrenekoa, nahiz eta 6 urte behar ziren benetan sozialista zen programa bat onartzeko EAF-ANVren barnean.

Gaur egun, 74 urte geroago, Euskal Herriak ezker abertzalea inoiz baino gehiago behar du. Ezker abertzale indartsu eta berritua, gure herriak aurrean dauzkan eronka nazional eta sozialei aurre egiteko gai.

Duela 74 urte abertzale aurrerakoi horiek argi ikusi zuten gure herriaren askatasuna sekula ez zela etorriko EAJ-PNVren eskutik. Egun bezala, aurreikusten zuten EAJko *mixtelinek*, garai haietako sotistek, askatasun nazionalaren aurretik euren interes oligarkikoak

eta euren aulkia jarriko zitzutela beti. 1936ko gerlak, Agirrerren gobernuak eta Frankismoak EAJren epelkeria estaltzeko balio izan zuten, eta beharrezkoa izan da 25 urteko ziklo autonomista bat, EAJ beti botere autonomikoan, jeltxekideen utzikeri nazionala berriro agerian uzteko.

Abagune honetan *Ibarretxe* deritzoten plangintza EAJ botere autonomikoan beste bi hamarkada luzatzeko maneiua besterik ez da. Inork ezin du sinistu EAJk ezer egingo duela Euskal Herriko independentzia bideratzeko, ezta gatazka konpontzeko ere. EAJko sektore atzerakoienak, azken kongresuaren irabazleak, eroso sentitzen dira gatazkaekin; are gehiago: gatazka bere alde gordinean irauteak euren aukien iraupena suposatzen du aldi beretan.

Duela 74 urte bezala, EAJko sektore atzerakoiek begi onez ikusten dute independentismoaren talde eragin-garrienak ilegalizatuak egotea. Primo de Riveraren diktaduran jeltxekide atzerakoiek ez ziren ilegalizatuak izan; bai, ordea, abertzaletasun independentistaren hainbat talde. Historia behin eta berriro errepikatzen da.

Egun bezala sotista edo *mixelin* hauek gobernu espainolak beste ezarritako

ilegalizazio eta debekua profitoratu nahi izan zituzten euren erakundeak gizentzeko, egun bezala. Orduan maneiua zikin hauek nahiko erabakigarriak izan ziren EAE-ANVren sorrera bultzatzeko. Gure aldetik ziur gaude EAJren konplizitate lotsagarria Ezker abertzale errealean zenbait talderen ilegalizazioarekin erabakigarria izango dela, beste hamaitxoko gauzen artean, jende askoren buruan dagoen zerbait gorpuzteko. EAJ-PNVren ezkerrean sortu beharrek koalizio nazional zabal bat, behingoz EAJ boteretik kentzeko gai izango litzatekeela.

Badakigu etsaiek ez digula erraz jarriko, errepresioa eta ilegalizazioak erabiliko dituela, zeren eta gero eta argiago dago EAJ-k oposiziara joan behar duela Euskal Herriari zerbait mugitzeko, eta ezker abertzale eta sektore aurrerakoiaren arteko aliantza batetik etor daitekeela soilik aldaketa hori.

Duela 74 urte, azaroaren 30ean San Andres egun batean gure aitona-amonak egin zuten bezala, garaia da ezker abertzale zabal, fresko, berritu eta indartsua sortzeko.

Denon eskuan dago.

Pako Gaiaga
EAE-ANV-ANBren izenean

» larrepetit

Eskubidea eta betebeharra



CASTILLO SUAREZ

Badira iragarki batzuk, egunotan telebista kate espainiarretan ematen ari direnak, nahiko bitxiak, negargarriak direla ez esateagatik. Iragarki horietan enpresa-multzo bereko zenbait lantegi agertzen dira, eta langileak aipatzen dituzte, are gehiago, zenbait langile ageri dira lanean. Nolanahi ere, bukaera bitxia dute iragarkiok. Izan ere, lantegietako Enpresa Batzordeak kideak agertzen dira enpresa-multzoa gobernatzen duen familiari —oso familia famatu, bestalde— beren esker ona adierazten, familiako enpresa begiruzkoa izan bide delako.

Ez da gauza txarra esker onekoa izatea. Ez txarra esker onekoa zarea agertzea. Dena den, ez dut uste benetako esker ona dagoenik, ez eta usteko esker on hori asmo komertzialekin agertzeko inolako beharrik dagoenik. Nor bere lana egin behar du, besterik ez, enpresaburu izan ala langile arrunta izan, batzuek enpresa aurrera ateratzeko, eta besteek bere lan egoera hobetzeko.

Gauza jakina da langileak beren izaera aldarrikatzailea galtzen ari direla, lan merkatua gero eta lehiakorragoa denez, gero eta desegonkorragoa, aldarrikapen gutxiago eta txikiagoak egiten dituztela. Horrekin lotuta, lehenagoan pertsona bati aditu nion gure eskualdetik kendu dutela Ufesa BSH sobera aldarrikatzaileak direlako bertako langileak; beste eskubide batean ez litzatekeela gertatuko.

Baina langileek beren alde borrokatzeko eskubidea eta betebeharra dute: egoera zailentzen zoin enpetan.

» galde-eskeak



ROGE BLASCO
KAZETARIA

Bidaia batara abiatzen zarenean, dena aurretik planifikatzen duzu, edo lurralde horretara iritsi eta abenturari ekiten diozu?

Aitor Goikoetxea

Egia esan, ez naiz bidaiari handia, bidaiatzea gustatzen zaidan arren. Lurralde batara joan behar dudanean planifikatzea gustatzen zait, baina nire kontura. Gida bat edo bi eskuratzetan ditut, joan behar dudan lekua berri izateko, eta nondik nora ibiliko naizen aukeratzeko. Herrialde horretako idazle bat edo besteren liburua ere irakurtzen ditut, beste modu bateko informazioa ere jasotzeko. Gero, harantz joateko txartela erosi eta lehenbiziko bi gauak egiteko hotel batean izena ematen dut, eta handik aurrera markaturako ibilbidean dena libre. Noski, behin bertaratutakoan planifikatutako gauza guztiak ez dira betetzen, eta inprobisazioa erabili behar izaten da.

» www.berria.info

Batasunaren ekarpena baliagarria iruditzen zaizu bakea lortzeko?

| | |
|-----|------|
| BAI | % 85 |
| EZ | % 15 |

Bakea ez da gauza bera espainiarrentzat eta euskaldunentzat. Haientzat, okupazioaren sinonimoa da. Guretzat, askatasun nazionala esan nahi du. **beñat**

Ni ez naiz inongo alderditako militantea, baina niretzat eta nire inguruko jendearentzat Batasunaren proposamena orokorrean oso positiboa dela ikusten dugu. Dena den, hemengo inkestan ere ikusten da %85entzat ere onuragarria dela Batasunaren proposamena, nahiz eta jakin inkesta honek ez daukala balio handirik. **kepa**

Denborak aldatuz doaz. Lehen bide on gisa ikusten ez zirenak gaur egun bide onak izan daitezke, eta ez dauka ezer txarrik diskurso aldaketa bat izateak. Batasunaren proposamena onuragarria izango dela espero dut. **euria**

» hitz beste

Zikin-estalia

ANJEL LERTXUNDI

Ez da denbora asko Lyndie England soldadua ikusi genuela irakiarrak torturatzeko Abu Graib kartzelan. Egunotan, berriz, beste argazki batek eman die buelta munduari eta gure kontzientzietan: soldadu estatubatuar bat ikusi dugu Falujako preso defentsarik gabe bat hotz-hotzean tirokatzen.

Baina argazkilaria soldadua berritailo berekoa zen. Orduan, zergatik zabaldu dute argazkia? Argazkilaria kontzientzia txarra izan liteke arrazoi, mendebaleko zintzotasuna berritailo prest kontzientzia individuala ereintzaz edertzeko. Baina gero eta indar gehiago hartzen ari den hipotesiaren arabera, Pentagonoaren filtrazio bat izan da argazkia. Arreta guztia argazkiko eszenan kontzentratuz, Falujan egingadako izugarrikeriak estali nahi omen zituzten: gela ilun haustu batean argi-izpi bat sartzen denean ere, argi-izpira bildutako hautsak soilik ikusten ditugu.